

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2026ko ordainagiriak kobratzeko moduan jartzea

Jendeari jakinarazten zaio 2026ko azaroaren 10etik aurrera ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, 2026ko jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagozkion ordainagiriak.

Ordaintzeko epea:

a) Borondatezko epea: 2026ko azaroaren 10etik 2027ko urtarrilaren 10era arte.

b) Epe exekutiboa (errekarguarekin): 2027ko urtarrilaren 10etik aurrera, eta errekarguak, premiamendu murriztukoak nahiz premiamendu arruntekoak, ordaindu beharko dira, bat etorritik Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 28. artikuluan jasotakoarekin.

Ordaintzeko tokia eta modua:

a) Banketxeetan helbideratutako ordainagiriak: ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu bera badute. Udalak izapidetuko du ordainketa. Zergadunei gogorarazten zaie ordainketa helbideratzeen altak eta aldaketak udaletxean izapidetu behar direla. Ordainagiriak 2026ko abenduaren 30ean kobratuko dira.

b) Helbideratu gabeko ordainagiriak: zergadunek udal bulegoetan ordaindu beharko dituzte, borondatezko epean, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 15:00etara.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Gaubea, 2026ko irailaren 1a

Alkate-lehendakaria
GORKA SALAZAR SENSO